

Turismoa sustatzeko kanpaina batek Arabako Errioxan “udazken errepikaezina” gozatzera gonbidatzen gaitu

Arabako Errioxako Kuadrillak eta Ardoaren Ibilbideak sustatu dute, Arabako Foru Aldundiaren Babesarekin

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 16a. Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillak eta Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbideak sustapen kanpaina bat jarriko dute abian datozen asteetan, 'Udazken errepikaezina. Bazatuz?' goiburupean, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako bisitariak erakartzeko eta hurbileko turismoa sustatzeko. Kanpaina bultzatzeko, aurkezpenak egingo dituzte Euskadin, eta Arabako Errioxako Upeltegien Elkartearen (ABRA) eta Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Sailaren laguntza izango du kanpainak.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Saileko foru diputatu Cristina Gonzálezek, Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako presidente Joseba Fernándezek eta Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbideko presidente María de Simónek gaur aurkeztu dituzte sustapen ekintzak, eta nabarmendu dute eragile publikoen eta pribatuen artean "berrasmatu, berritu eta indarrak batu" beharra dagoela, koronabirusaren krisiak eta haren ondoriozko murrizketek turismo sektorean eragindako ondorio negatiboak gaingitzeko.

"Argi daukagu hurbileko turismoa izango dela sektorearentzako motor nagusia epe labur eta ertainean Araban, bai eta Arabako Errioxan ere, pandemiaren ondorioz helmuga hurbilagoak aukeratzen baititugu. Azken hilabeteetan, gertuko turismoa sustatu du Foru Aldundiak, Euskadin eta probintzia mugakideetan, hainbat ekintzaren bitartez, eta gaur aurkezten ari garen kanpainak ildo beretik jarraitzen du", adierazi du Cristina González diputatuak.

“Udazken errepikaezina. Bazatuz?” kanpaina hainbat euskarri eta bitartekoren bidez gauzatuko da, Arabako Errioxatik gertu bizi diren bisitari potentzialak erakartzeko. Aukeratutako goiburuak agerian uzten ditu eskualdea, mahastiak kolorez tindatuta dituela, unerik ederrenean dagoen urtaroaren erakargarriak, egun gutxi batzuetako ihesaldian gozatu daitezkeenak.

Hiri euskarrietan iragarkiak jartzea planifikatu da, hala nola garraio elementuetan edo mupietan, Bizkaian, Bilbon, Gipuzkoan eta Gasteizen; sare sozialetan ere egingo da sustapena; QR kodeak dituzten euskarriak jarriko dira bisitariari harrera egiteko zentroetan; pdf interaktibo bat jarri da Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillaren web atarian, eta bannerra izango da ikusgai udalen eta enpresa parte hartzaileen web orrietan. "Kanpaina hau gure enpresei eta, oro har, gure eskualdeari aurtengo krisi ekonomikotik irteten laguntzeko diseinatu da", adierazi du Joseba Fernández Kuadrillako presidentek.

Helmugaren aurkezpena

Kanpaina osatzeko, Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbidearekin lotutako hainbat ekintza egingo dira, eskualdea helmuga turistikoa gisa sustatzeko eta esperientzia enoturistikoa merkaturatzeko webgunea (visitriojaalavesa.com) zabaltzeko, Euskadiko hainbat tokitan *in situ* egindako aurkezpenen bidez. Ardoaren Ibilbideak urriaren 29an egingo du Arabako Errioxaren lehen aurkezpena Bilbon, Cristina González foru diputatua bertan dela.

Gainera, hainbat sustapen bidaia antolatu dituzte irailetik abendura, kazetari espezializatuekin eta bidaia agentziekin — *fam press* eta *fam trips* direlakoak —, Arabako Errioxako turismo eskaintza berriak aberats eta zabala ezagutarazten jarraitzeko. Aurkezpen horiekin batera, sustapena egingo da Euskadiko hainbat komunikabidetan (off eta onlineko prentsa idatzia, irrati kateak etab.).

Azkenik, Arabako Errioxa prestakuntza eta jakintza gune gisa indartzeko, Ardoaren Ibilbideak 'Añada Conocimiento' izeneko prestakuntza proiektuaren beste edizio bat antolatuko du, eskualdeko saltokiak lehiakorragoak izan daitezen. Prestakuntza pilulak datorren astean hasiko dira online, eta Arabako Errioxako Enoturismoaren X. Foroa, berriz, azaroaren 19an eta 20an izango da, aurrez aurre.

Gainera, hurrengo campusaren xehetasunak zehazten ari dira, zeina 2021eko otsailean egitea baitago aurreikusita.

Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbideko presidente María de Simónek azpimarratu duenez, "Prestakuntza onak gure bezeroei zerbitzu hobea eta kalitatezko eskaintza ematea dakar, eta, ondorioz, lehiakorragoak izango gara. Arabako Errioxako turismo enpresek prestakuntza behar dute, eta horregatik antolatzen dugu Añada Conocimiento izeneko prestakuntza programa osatu hau".